

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

183/2016 Foru Agindua, uztailaren 20koa, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio honako hauek onartzeko prozedurari Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Plana eta kudeaketa gidalerro eta jardunen dokumentua Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu eta hegaztientzako babes bereziko eremurako

Izkiko eremua natura parke izendatu zen 65/1998 Dekretu martxoaren 31koaren bitartez (EHAA, 80. zk., maiatzaren 4koa). 64/1998 Dekretu martxoaren 31koaren bidez, Izkiko eremuko Natura baliabideak antolatzeke Plana onartu zen (EHAA, 80. zk., maiatzaren 4koa), bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen 7. artikuluan ezarritako prozedurarekin, zeinaren testu bategina onartu baitzen 1/2004 Legegintza Dekretu apirilaren 15ekoaren bidez (EHAA, 92. zk., 2014ko maiatzaren 19koa).

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak Izkiko Natura Parkearen Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Planaren hasierako agiria egin zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginean ezarritako izapideak igaro ondoren, behin betiko onartu zen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 15eko 215/2012 Erabakiaren bidez.

Hala ere, ez zen bururatu kudeaketa agiri horri azken onarpena eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko prozedura, zeren Izkiko eremua, natura parke izendatua izateaz lekora, Natura 2000 europar sareko eskualde biogeografiko atlantikoko Batasunaren garrantziko lekuen zerrendan (BGL) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen zerrendan (HBBE) sartu baitzuen Europako Batzordeak, ES2110019 kodearekin, eta, hala, Eusko Jaurlaritzan horri buruzko eskumena duen sailak kontserbazio bereziko eremu (KEB) izendatzeko prozesua abiarazi baitzuen; beraz, beharrezkoa zen planifikatzea lurralde berean batera eragiten duten hiru tresnak eta argitzea kudeatzeko tresnen egitura.

Zehazteko behar hori berariaz dator Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginean xedatutakotik:

— 13. artikuluan, natura gune babestuen kategoriak jasotzen dira, eta horien artean dira “Europako Natura 2000 Sarean sartutako eremu edo lekua (Batasunaren garrantziko lekuak –BGL–, kontserbazio bereziko eremuak –KBE– eta hegaztientzako babes bereziko eremuak –HBBE–), a), b) eta c) aurreko kategoriekin eremuz, osoki edo partzialki, batera suertatzen bada ere)”

— 18 artikulua dio: “Natura-gune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu behar dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.

Arau hori Estatuaren oinarriko legeriari jarraituz idatzi zen, alegia, 42/2007 Legearen 28.2 artikuluari jarraituz (42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, beste honek emandako idazkeraren arabera: 17/2012 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 4koa, Ingurumen arloko presako neurriei buruzkoa).

2016ko martxoaren 1ean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailak 33/2016 Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez Izki (ES2110019) kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremu (HBBE) izendatzen baita, dagozkion kontserbazio neurriekin (EHAA, 98. zk., 2016ko maiatzaren 25koa).

Araugintza ildo horri berari jarraituz, 1/2014 Legegintza Dekretuaren 22. eta 18. artikuluek 27. eta 19. artikuluekin loturik xedatzen dutenaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak, natura gunearen organo kudeatzailea den aldetik, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren bitartez, hasierako agiri berri bat egin du, "Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko II. Plana eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiria" izenekoa, gune horren kudeaketa lege horren printzipio inspiratzaileei egokitzearen.

Horretarako, agiri horrek gune horretako erabilera eta jardun batzuen eta besteen arauketa berariazkoa ezartzen du, bai eta Izkiko natura parkea kudeatzeko irizpideak eta oinarritzko jardunak ere. Era berean, gune horren kontserbazio helburuak definitzen ditu, bai eta Natura 2000 Europar Sare Ekologikoko natura gune gisa (Izki ES2110019 KEB/HBBEa) kudeatzeko irizpide eta neurriak ere.

Testu berrian sartzen dira Batasunaren garrantzizko leku, natura parke, kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremu (HBBE) hori babesteko tresna batzuk eta besteak. Halako moldez non, izapide hauetatik aterako den agiria natura parkea izendatzeko dekretuaren III. eranskin gisa joango baita, Izkiko gunearen planifikazio koordinatua lortzearen.

Agiria onartzeko prozedura, berriz, ebazpen honen bidez hasiko da, eta izapide hauek igaro beharko ditu:

1. 2 hilabeteko epean aldi berean gauzatuko diren izapideak:

— Erasandako udalen eta administrazio batzarren eta eskualde horretan interes sozialak ordezkatzen dituzten elkarte txostena.

— Erasaten zaien herri administrazioei entzunaldia emateko izapidea.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Naturaren Aholku Batzordearen, Ingurumen arloko Aholku Batzordearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordearen eta Landaberriren txostena.

— Jendaurrean jartzeko izapidea.

2. Alegazioak eta proposamenak analizatu ostean, Planaren agiria aurkeztuko zaio, hala badagokio onar dezan, natura parkearen patronatuari.

3. Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak II. EKAPari hasierako onarpena ematea, kontserbazio bereziko eremuaren eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren kudeaketa eta jardun gidalerroak erantsita, Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 29 c) artikulua xedatutakoa betez.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordearen eta hirigintza arloan eskumena duen foru organoaren txosten aginduzkoa (ELAB).

Txostena emateko epea: hilabete.

5. Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartzea helburu zehatzak garatzeko programak lantzeko gidalerroak, bai eta natura gunea kudeatzeko gidalerroak eta jardun irizpide eta jarraibide orokorrak ere.

6. Emaita gisa ateratzen den agiria autonomia erkidegoan natura guneen arloan eskumena duen sailari aurkeztuko zaio, eta hark Eusko Jaurlaritzari aurkeztuko dio araugintza eragina duen zatia, dekretuz onar dezan.

Erabilera eta kudeaketa arautzeko planaren araugintza eragineko zatia onartzen duen dekretuak aginduko du argitara daitezela, dekretuaren eranskin gisa, foru organoak onartutako gidalerro, irizpide, jardun eta jarraibideak.

Azaldutako horren guztiaren ondorioz, eta kontuan harturik Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Foru Arauak (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa) 40. artikuluan Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari esleitzen dizkion eskumenak

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Abiaraztea Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren (HBBE) erabilera eta kudeaketa arautzeko II. plana (EKAP) eta kudeaketa gidalerro eta jardunen dokumentua onartzeko prozedura.

Izapide hauek igarota ateratzen den agiria Izkiko KEBa eta HBBEa izendatzeko dekretuaren III. eranskin gisa joango da.

Bigarrena: Hasierako onarpena ematea Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren (HBBE) erabilera eta kudeaketa arautzeko II. plana (EKAP) eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiriari.

Hirugarrena: Behean aipatzen direnei aurkeztea Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren (HBBE) erabilera eta kudeaketa arautzeko II. plana (EKAP) eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiria, txostenak egin ditzaten:

- Arraia-Maeztuko Udala.
- Bernedoko Udala.
- Kanpezuko Udala.
- Apinaiz, Atauri, Korres, Maeztu, Birgaragoien, Arluzea, Markinez, Kinta, Durruma Kanpezu, Urarte, Urturi, Antoñana eta Bujandako administrazio batzarrak.
- Eskualdeko interes sozial, ekonomiazko eta ingurumenezkoak ordezkatzten dituzten elkar-teak.
- Naturzaintza Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Aholku Batzordea.
- Ingurumen arloko Aholku Batzordea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordea.
- Landaberri.

Txosten horiek emateko gehieneko epea bi hilabete izango da, ebazpen hau jakinarazten denetik.

Entzunaldia eskaintzea herri administrazioei, bi hilabetekoa, aurreko atal horietan aipatzen diren agiriak jasotzen direnetik hasita.

Laugarrena: Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 86. artikuluan xedatutakoaren konforme (30/1992 Legea, azaroaren 26koa), EKAParen eta kudeaketa gidalerro eta jardunen hasierako agiria (alegia, Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu eta hegaztientzako babes bereziko eremuari dagokiona) jendaurrean jartzea, nornahik, pertsona fisiko nahiz juridiko, dokumentua aztertu ahal izan dezan eta alegazioak aurkeztu, argitaratzen denetik bi hilabeteko epean. Iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Epe horretan, Izki ES2110019 natura parke, kontserbazio bereziko eremu (KEB) eta hegaztientzako babes bereziko eremuaren (HBBE) erabilera eta kudeaketa arautzeko II. plana (EKAP) eta kudeaketa gidalerro eta jardunen agiria hemen aztertu ahal izango da:

- Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren Natura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoa (Probintzia plaza, bulego teknikoak, 2. solairua, 01001 Gasteiz).

- Arraia-Maeztuko Udala.
- Bernedoko Udala.
- Kanpezuko Udala.

Interneteko helbide honetan ere bai: <http://www.araba.eus/web/izki>, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailaren orrian..

Bosgarrena: Alegazio, ohar eta iradokizunak hona igorri behar dira: Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren Natura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoa (Probintzia plaza, bulego teknikoak, 2. solairua, 01001 Gasteiz).

Seigarrena: Ebazpen hau izkiko natura parkearen patronatuko kideei jakinaraztea, agiriaren testu osoa igortzearekin batera.

Gasteiz, 2016ko uztailaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO